# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## INDUSTRIA ETA ENERGIA SAILA

### 1035

14/1993 DEKRETUA, otsailaren 2koa, industri alorrean inbertsioak egiteko finantza-laguntzetarako programa arautzen duena.

1993. urtean Merkatu Bakarra indarrean jartzeak, produkzio egiturak handiagotzeko, hobetzeko eta gaurkotzeko bideak emango dituen inbertsio-ahalegin handi bat eskatzen die gure PYMESei eta bai gerorako balioa duten beste egitura berri batzuren garapena ere.

«Europako Merkatu Handi» horrek dakarren aupadari arrakastaz aurre egiteko bideak emango dizkigun inbertsio-prozesu horretan, PYMESei laguntza eskaintzea da Dekretu honen helburua. Elkarteko lehiatzaileen aurrean, onargarriak izan daitezkeen finantzabideez baliatu ahal izatea da oinarrizko helburua eta bai gure artean diruak duen koste handiak sortzen dituen eragozpenak gainditzen laguntzea ere.

Gure konpetitibitatearen gain eraginik zuzenena izango duten faktoreak indartzea nahi da eta honako hauek bere baitan daramatzaten proiektuei emango zaie lehentasuna beste batzurekin batera:

– Geroan indarra izango duten arloetarako, industriak dibertsifikatzea eta ohizkoak ez diren Merkatuetan sartzea.

– Teknologia mailan gorentasuna duten produkzio-ekipoak honeratzea.

– Lehengaiak eta/edo energia aurreztea ekar dezaketen proiektuak.

– Enpresarteko lankidetzarako ekintzak.

Bestalde, industriek ingurugiroan duten eragina gutxiagotzen artez lagundu dezaketen proiektuei laguntzeari, lehentasuna ematen zaio helburuak aukeratzerakoan. Merkatatu Bakarrean sartzeak, Elkarteko arauei berehala egokitu beharra ekarriko du ingurugiroari dagozkionetan eta, honek, inbertsio handiak eskatuko ditu. Gure PYMESentzako arrisku bezala ikus daiteke lehen aipatu den hori; hala ere eta bestalde, negozioetarako aukera bat ere izan daiteke, izan ere, indar handia izango duen ihardunaren arlo berri bat bultzatuko bait du.

Ingurugiroarekiko kutsadura mailak gutxiagotzea xedetzat duten proiektuei ekin diezaien enpresei emango zaie lehentasuna eta, bereziki, ingurugiroarekin lotura duten produktuak edo zerbitzuak eskaini ditzatenei.

EAEren 1987. ekitaldirako Aurrekontu Nagusiak onartzen direneko uztailaren 8ko 2/1987 Legeko azken xedapenetatik hirugarrenean eta EAEren 1991. ekitaldirako Aurrekontu Nagusiak onartzen direneko maiatzaren 30eko 1/1991 Legeko 31. atalean horretarako aurrekontu habilitagarriak jasotzen direneko arau hoen bidez, Enpresa Txiki eta komunitarioei (1.992.8.19ko C213 DO.) egokitzen zaie gure sistema. Eta hori egin ahal izateko, beharrezkoa izan da, onura-

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y ENERGIA

### 1035

DECRETO 14/1993, de 2 de febrero , por el que se regula el programa de ayudas financieras a la inversión en el sector industrial.

La entrada en vigor del Mercado Unico en enero de 1993 exige de nuestras PYMES un importante esfuerzo inversor que haga posible la ampliación, mejora y modernización de las estructuras productivas ya existentes, así como el desarrollo de otras nuevas en sectores de futuro.

El presente Decreto, tiene por objeto el apoyo a las PYMES en este proceso inversor que nos permitirá encarar con ciertas garantías de éxito el reto que supone el «Gran Mercado Europeo». Se trata básicamente de asegurarse el acceso a los medios de financiación en condiciones aceptables respecto a sus competidores comunitarios y ayudarles a superar la desventaja comparativa que supone el alto coste del dinero en nuestro país.

Se ha tratado de impulsar aquellos factores que inciden de forma más directa sobre nuestra competitividad, primándose entre otros los proyectos que supongan:

– Diversificación del tejido industrial hacia sectores de futuro, así como la penetración en Mercados no tradicionales.

– La incorporación de equipos productivos con elevado contenido tecnológico.

– Proyectos que supongan ahorro de materias primas y/o energía.

– Acciones de cooperación interempresarial.

Por otro lado, se ha seleccionado como objetivo prioritario el apoyo a proyectos que contribuyan directamente a la reducción del impacto medioambiental causado por la actividad industrial. Nuestra entrada en el Mercado Unico nos va a obligar a llevar a cabo un rápido proceso de adaptación a la normativa comunitaria en materia de medio ambiente, lo cual requerirá que se realicen fuertes inversiones. Esto que en principio podría verse como una amenaza para nuestras PYMES, es a la vez una oportunidad de negocio, pues impulsa un nuevo sector de actividad de gran futuro.

Se primará no sólo a aquellas empresas que acometan proyectos encaminados a reducir sus índices de contaminación medioambiental, sino también y de forma muy específica a aquéllas que ofrecen productos o servicios relacionados con el medio ambiente.

Con la presente norma, cuyos presupuestos habilitantes vienen contenidos en la disposición adicional tercera de la Ley 2/1987, de 8 de julio, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la C.A.P.V. para 1987, y en el artículo 31 de la Ley 1/1991, de 30 de mayo, que aprueba los Presupuestos Generales de la C.A.P.V. para 1991, se adapta nuestro sistema de incentivos a la inversión a las directrices comunitarias sobre ayudas estatales a las Pequeñas y Medianas empresas

dunari buruzko definizioa eta dirulaguntzen intentsitatea aldatzea.

PYMES delakoek ekonomian duten eragina jartzen dute nabarmen aipatu diren artezbide horiek, izan ere, ekonomiaren alde estatikoa kontutan hartuz, produkzioan eta enplegu sorketan partaidetza handia izaten baitute eta, enpresa moeta horien alde dinamikoa kontutan hartuz, beren lehen mailako egitekoa baitute. Era berean, enpresa hauek dituzten arazoen berezitasuna eta ohizko enpresa handiekiko dituzten orekagabekeriak onartzen dira artezbide horietan. Horiek horrela, bidezkoa da, agintariek aldezko tratamendu berezia ematea.

Horiek horrela, Industria eta Merkataritza Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko otsailaren 2an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.*– Xedea

Dekretu honetan eta hau garatuko duten xedapenetan ezarri dadinaren arabera, Euskal Autonomi Elkartean Aktibo Finkoetan egin daitezen inbertsioei laguntzak emateko eremu orokorra definitzea da Dekretu honen xedea.

*2. atala.*– Baliabide ekonomikoak

Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorretan horretarako izenda daitezen diruetatik hartuko dira aurreko atalean zehaztu direnetarako erabiliko diren diru-baliabideak.

*3. atala.*– Laguntza moeta

Dekretu honetan eta izenpetu daitezen Hitzarmenetan oinarri hartuz formaldu daitezen mailegu edo finantza-errentamendu eragiketek izan ditzaketen finantza kosteak gutxitzeko bideak eskainiz gauzatuko dira Dekretu honetan jasotzen diren dirulaguntzak.

*4. atala.*– Onuradunak.

Honako hauek baliatu ahal izango dira Dekretu honetan aipatzen diren dirulaguntzez:

1. Enpresa Txiki eta Ertainak (PYME). Honako baldintza hauek bete ditzaten enpresak joko dira horrelakotzat:

– 250 langile baino gehiago ez dituztenak.

– Urteko fakturazioak ez dezala gainditu 2.860.000.000 PTAko diru-kopurua edo, bestela, ibilgetu garbiak ez dezala gainditu 1.430.000.000 PTAko diru-kopurua.

– Lehen aipatu diren baldintzetakoren bat bete ez dezan enpresaren batek ez dezala izan %25etik gorako partaidetzarik, ez artez eta ez zeharka ere.

Enpresa txiki eta ertainen arteko bereizketa egin beharra egon dadinean, honako baldintza hauek bete ditzana joko da enpresa txikitzat:

– Ez ditzala izan 50 langile baino gehiago.

– Urteko fakturazioak ez dezala gainditu

(PYME) (DO n C213 de 19.8.1992), para lo cual ha sido necesario modificar la definición de beneficiarios, así como la intensidad de las ayudas.

Las mencionadas directrices destacan la importancia del sector de las PYMES en la economía, tanto desde una perspectiva estática de la misma, por su participación en la producción y en el empleo, como desde un punto de vista dinámico, dado que su flexibilidad y capacidad de adaptación les confiere un papel primordial en la creación de empleo y en la innovación. Asimismo, reconocen la especificidad de sus problemas y su situación de desventaja respecto de las Grandes empresas tradicionales, todo lo cual justifica un tratamiento diferenciado a la hora de adoptar los poderes públicos medidas positivas de apoyo.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria y Energía, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el 2 de febrero de 1993

DISPONGO:

CAPITULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Objeto

El presente Decreto tiene por objeto definir el marco general de ayudas a la Inversión en Activos Fijos a realizar en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en los términos previstos en el mismo y en sus disposiciones de desarrollo.

*Artículo 2.*– Recursos Económicos

Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 3.*– Modalidad de Ayuda

Las ayudas contempladas en el presente Decreto se materializarán a través de la reducción del coste financiero de las operaciones de préstamo o de arrendamiento financiero que se formalicen al amparo de la presente Norma y de los Convenios que a tal efecto se suscriban.

*Artículo 4.*– Beneficiarios

Podrán acceder a las ayudas contempladas en el presente Decreto:

1. Las Pequeñas y Medianas empresas (PYME), entendiéndose por tales aquéllas que cumplan los siguientes requisitos:

– Que su plantilla no supere los 250 trabajadores.

– Que su facturación anual no supere los 2.860.000.000 de pesetas, o bien, que su inmovilizado neto no rebase los 1.430.000.000 de pesetas.

– Que no se halle participada directa o indirectamente en más de un 25% por empresas que no reunan alguno de los requisitos anteriormente expuestos.

Cuando sea necesario distinguir entre empresas pequeñas y medianas, se entenderá por empresa pequeña aquélla:

– Que no tenga más de 50 trabajadores.

– Que su facturación anual no supere los

715.000.000 PTAko diru-korpura edo, bestela, ibilgetu garbiak ez dezala gainditu 286.000.000 PTAko diru-korpura.

– Lehen aipatu diren baldintzetakoren bat bete ez dezan enpresaren batek ez dezala izan %25etik gorako partaidetzarik, ez artez eta ez zeharka ere.

Dena dela, aipatu diren enpresa horiek, indusketa eta transformaketa enpresak izan beharko dute eta enpresa horiei zerbitzuak egiten dizkietenak.

Honako hauek betetzeko izan daitezenean onartuko dira aurreko parrafoan aipatu diren zerbitzu-enpresak: Produktuaren prozesua hobetzeko, elektronika arloa ustiatzeko, ingurugiroarekiko eragina gutxiagotzeko, merkatua aztertzeko zerbitzu teknikoak eta industria berritzeko beste era batzutako zerbitzuak.

2. Aurreko 1. zenbakian sartuta egon eta enpresetako teknika-ekonomi aldeak arrazionaltzeko ekintzak burutu ditzaten enpresek osatzen dituzten enpresarteko egiturak.

3. Dena dela, dirulaguntzaren gai izan daitezkeen inbertsio proiektuak Euskal Autonomi Elkarteko lurraldean egin beharko dituzte aurreko zenbakietan aipatu diren enpresek, zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko eginbeharrak arloari buruz indarrean dauden arauek ezartzen dutenaren arabera beteta dituztela kreditatu beharko dutela.

*5. atala.*– Honetan sartzen ez diren erakundeak

Honako hauek ez dira onartuko hobariduntzat:

1. Enpresa handiak, hau da, enpresa txiki edo ertaintzat jotzen ez direnak, Dekretu honetako 4.1 atalean aipatzen denaren arabera.

2. Izaiki eta baltzu publikoak.

3. Birmoldatu beharrekotzat deklaratuak izan diren edo deklara daitezkeen sektoreen barruan onartuak izan diren edo onargarriak izan daitezkeen enpresak.

4. Enpresak eta enpresarteko egiturak, horien inbertsio proiektuak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak, Garraio eta Herrilan Sailak eta Nekazaritza eta Arrantza Sailak dituzten eskuduntzen barruan sar daitezenean.

*6. atala.*– Dirulaguntzaren gai izan daitezkeen inbertsio proiektuak.

Honako baldintza hauek bete ditzaten inbertsio proiektuak kalifikatuko dira dirulaguntzak hartzeko gaitzat:

A) Bideragarriak izan daitezela, bai teknika, bai ekonomi eta bai finantza mailan ere.

B) Gutxienez, 10 milioietakoa izan dadila onargarria den inbertsio bolumena.

C) Inbertsioa egiterakoan, 3 langile gutxienez dituzten enpresek garatu dezatela inbertsio proiektua, hiru urtez gutxienez eutsi beharko diotela plantila horri.

*7. atala.*– Laguntza jaso lezakeen inbertsioa.

Honako inbertsio moeta hau hartuko da laguntzaren gai izan daitekeenekotzat, Dekretu honetan ezartzen denaren ondorioetarako: Enpresaren aktiboekin bat egingo duten aktibo finkoak erostea eta ondoren aipatzen diren baldintzak eta, Dekretu honetan eta hau

715.000.000 de pesetas, o bien, que su inmovilizado neto no rebase los 286.000.000 de pesetas.

– Que no se halle participada directa o indirectamente en más de un 25% por empresas que no reúnan alguno de los requisitos anteriormente expuestos.

En cualquier caso las empresas señaladas deberán ser empresas industriales extractivas y transformadoras, y de servicios prestados a las empresas industriales.

Las empresas de servicios señaladas en el párrafo anterior sólo se contemplarán cuando su actividad corresponda a servicios técnicos, de mejora de proceso-producto, de explotación electrónica, de reducción del impacto medioambiental, de estudios de mercado, y de otros servicios de apoyo a la innovación industrial.

2. Las estructuras interempresariales constituídas por empresas incluídas en el número 1 anterior que realicen acciones tendentes a la racionalización de los aspectos técnicos-económicos de las empresas integrantes.

3. En todo caso, las empresas señaladas en los números anteriores, deberán localizar los proyectos de inversión objeto de ayuda en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como acreditar el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y, en su caso, de Seguridad Social de conformidad con lo que al respecto disponga la normativa vigente en la materia.

*Artículo 5.*– Entidades excluídas

Quedan excluídas como beneficiarias:

1. Las Grandes empresas, entendiéndose por tales, las que no tengan la consideración de Pequeñas o Medianas empresas de acuerdo con el Artículo 4 punto 1 del presente Decreto.

2. Los Entes y Sociedades públicas.

3. Las empresas acogidas o susceptibles de haberse acogido a sectores declarados o que hubieran sido declarados en reconversión.

4. Las empresas y estructuras interempresariales cuyos proyectos de inversión corresponden a los ámbitos competenciales de los Departamentos de Educación, Universidades e Investigación, Comercio, Consumo y Turismo, Transportes y Obras Públicas y Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

*Artículo 6.*– Proyectos de inversión subvencionable

Los proyectos de inversión serán calificados como subvencionables cuando cumplan las siguientes condiciones:

A) Que sean viables técnica, económica y financieramente.

B) Que el volumen de inversión admisible sea como mínimo de 10 millones de PTA.

C) Que sea desarrollado por empresas que tengan una plantilla mínima de 3 trabajadores en el momento de la materialización de la inversión, manteniéndola como mínimo durante tres años.

*Artículo 7.*– Inversión subvencionable

A los efectos del presente Decreto, se considera inversión susceptible de ayuda, la adquisición de activos fijos que se incorporen al activo de la empresa y que cumplan, además de los que fueran de aplicación en virtud de lo dispuesto en el presente Decreto y sus dis-

garatzeko xedapenetan ezartzen denaren arabera, aplikagarriak izan daitezkeenak bete ditzana:

A) Honako kategoria hauetakoren batetan, abenduaren 20ko 1643/1990 Errege Dekretuan jasotzen den Kontabilitateari buruzko Plan Orokor Berrian eta gero aipatzen diren idazpuruetan sartuta egon dadila, horretarako ezartzen den definizioaren arabera:

– 215, Aplikazio informatikoak.
– 221, Eraikuntzak.
– 222, Instalazio teknikoak.
– 223, Makinak.
– 224, Tresneria.
– 225, Beste instalazio batzuk.
– 227, informazioa prozesuaterako Ekipoak.

Lurrak izan daitezenean, eraikintzaren gai izan den aldea bakarrik izango da laguntzaren gai izan daitekeena.

Dena dela, enpresaren helburu soziala osatzen duen ihardunarekiko artezko lotura izan beharko dute aktiboek.

B) Lehenengo aldiz erabiltzekoak edo ihardunean jartzekoak izan daitezela. Erabilitako edifizioak eta beste eraikin batzuk erosi daitezenean, berriak baitliran hartuko dira.

C) Amortizaketarako hiru urteko gutxienezko epea ezarrita izan dezatela, gutxienez hiru urtez iraun beharko dutela enpresako aktibo gisa.

D) Oro har, ez daitezela egon beste norbaiti lagata, kontraprestazioarekin edo hori gabe.

E) Oro har, eskabidea egiten duenak berak egindakoak ez daitezela izan (dena dela, ez zaie sekula emango kanpotik bertaratu daitezen kontsumoei baino balio handiagorik).

F) Oro har, aktiboaren elementuak, 500.000 PTAtik gorako balioa izan dezala bakoitzak.

G) «Eraikuntzak» delakorako inbertsioak izan daitezenean eta era bereko ondasun bat horretarako aurrez saltzea eman dadinean, ondasun berria erostearen prezioaren eta aurrekoa saltzean eskuratutakoaren arteko aldearen balioa emango zaio inbertsio horri.

H) «Eraikuntzak» delakoan inbertsioak egin beharra gerta dadinean eta laguntzaren gai izan daitekeen maileguaren eta/edo leasing-aren mugak kalkulatu ahal izateko, laguntzaren gai izan daitezkeen gainontzeko aktiboei hainbateko balioa emango zaio inbertsioari. Dadina dadila, oinarritarako hartuko den balioa, dagokion eskrituran aditzera emanten dena izango da.

Apartadu honetan, inbertsio horren beharra behar bezala justifikatu beharko da.

*8. atala.–* Lehentasuna duten proiektuak.

1. Euskal Autonomi Elkarteko industriak dibertsifikatzea ekar dezaketen inbertsio proiektuak. Honako hauek joko dira horrelakotzat:

A) Euskal Autonomi Elkartearentzako estrategia mailako interesa izan dezaketen sektoreetarako ihardunak dibertsifikatzea.

B) Sektoreko enpresek garatu dutenarekiko hobekuntza nabarmena ekar lezakeen prozesu-produktuaren dibertsifikazioa.

posiciones de desarrollo, los requisitos que, a continuación, se indican:

A) Que se trate de alguna de las siguientes categorías, según la definición que, al efecto, establece el Nuevo Plan General de Contabilidad, recogido en el Real Decreto 1643/1990 de 20 de diciembre, en los epígrafes siguientes:

– 215 Aplicaciones informáticas.
– 221 Construcciones.
– 222 Instalaciones técnicas.
– 223 Maquinaria.
– 224 Utillaje.
– 225 Otras instalaciones.
– 227 Equipos para procesos de información.

En el caso de terrenos, serán subvencionables únicamente por la parte edificada.

En todo caso, los activos deberán estar directamente relacionados con la actividad que constituye el objeto social de la empresa.

B) Que sean utilizados o entren en funcionamiento por primera vez. En el caso de que se trate de la adquisición de edificios y otras construcciones ya usados, tendrán el tratamiento de nuevos.

C) Que tengan establecido un período mínimo de amortización de tres años, debiendo permanecer, como mínimo, ese mismo tiempo en el activo de la empresa.

D) Que, con cárácter general, no se hallen cedidos a terceros, con o sin contraprestación.

E) Que, con carácter general, no hayan sido fabricados por el propio solicitante (y, en cualquier caso, nunca se computarán por un valor superior al de los consumos externos que incorporen).

F) Que, con carácter general, los elementos de activo tengan un valor unitario superior a 500.000 PTA.

G) En el caso de inversiones en «Construcciones», cuando se haya producido una enajenación previa de un bien de la misma naturaleza, dicha inversión se computará por la diferencia entre el precio de adquisición del nuevo bien y el obtenido en la venta del anterior.

H) En el caso de inversión en «Construcciones», y a efectos del cálculo del límite de préstamo y/o leasing a subvencionar, dicha inversión se computará por una cuantía máxima igual al resto de los activos de carácter subvencionable. En cualquier caso, el valor tomado como base será el reflejado en la correspondiente escritura.

En el presente apartado, la necesidad de dicha inversión deberá ser debidamente justificada.

*Artículo 8.–* Proyectos de carácter prioritario

1. Proyectos de inversión que supongan diversificación del tejido industrial vasco, entendiendo como tal:

A) Diversificación de actividad hacia sectores de interés estratégico para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

B) Diversificación del proceso-producto que suponga una mejora significativa respecto a lo desarrollado por las empresas del sector.

C) Merkatu berrietarako deibertsifikazioa, ohizkoak ez diren merkatuetan gure produktuak sartu ahal izateko.

2. Honako elementu hauetakoren bat ugariki hartzen dituzten proiektuak:

A) Euskal Autonomi Elkartearentzako estrategia mailako interesa izan eta teknologia mailako edukia duten ekipoak.

B) Lehengaien probetxamenduan eta erabilketan edo enpresetako energiaren emankortasunean hobekuntza ekarriko duten inbertsioak.

C) Industria-ihardunak ingurugiroan izan lezakeen eragina gutxiagotzeko diren inbertsioak.

3. Parte hartzen duten enpresetan, teknika eta ekonomi mailako aldeen arrazionalizazioa ikertzeko eta enpresen arteko elkarlanerako diren ekintzak ekar ditzaketen proiektuak.

4. Egon dagoen enplegu maila nabarmenki gehitzea ekar dezaketen proiektuak. Aparteko baloraketa emango zaio teknologi berriekin lotura duten enplegua bertaratzeari.

II. ATALBURUA

DIRULAGUNTZAK

I. SEKZIOA

ENPRESEI ESKAINTZEN ZAIZKIEN INDUSTRI ETA ZERBITZU-SEKTOREETAN, AKTIBO FINKOETAN EGINGO DIREN INBERTSIO-PROIEKTUEI MAILEGUAK EMATE-ERAGIKETETAN EGINGO DIREN FINANTZA-KOSTEAK GUTXIAGOTZEKO DIREN DIRULAGUNTZAK

*9. atala.–* Mailegu eragiketak

Dekretu honetan eta Erakundeekin izenpetuko diren Lankidetza Hitzarmenetan oinarri hartuz, Finantza Erakundeen eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren artean formalduko diren mailegu-eragiketak hartzen dituzte Sekzio honetan aipatzen diren dirulaguntzek eta bai lehen aipatu diren Sailen eta Finantza Erakundeen artean, Europako Elkarteak Finantza arloan izan ditzakeen arauen arabera, izenpetu daitezkeen agiango Hitzarmenetan oinarri hartuz, formaldu daitezkeen mailegu-eragiketak ere.

*10. atala.–* Laguntzen gai izan daitezkeen maileguak.

Pezetetan edo edozein eratako dibisetan formaldu daitezke maileguak, atal honetako 1. puntuan finkatzen diren baldintzei egokitu dakizkionaren baldintzapean.

1. Maileguen ezaugarriak:

A) Subentzionagarri izan daitekeen inbertsioaren %60koa izango da dirulaguntzaren gai izango den maileguaren gehienezko zenbatekoa.

B) Epea: 5 urtetik 7 urtera artekoa, lehenengo gabealdia barne. Honako epe hauek izango dituzte gehienera gabealdiek:

– 7 urtetarako mailegua: 24 hilabete.
– 6 urtetarako mailegua: 18 hilabete.
– 5 urtetarako mailegua: 12 hilabete.

C) Diversificación hacia nuevos mercados a fin de conseguir la penetración de nuestros productos en mercados no tradicionales.

2. Proyectos en los que se incorporen de manera significativa algunos de los siguientes elementos:

A) Equipos con contenido tecnológico de interés estratégico para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

B) Inversiones que supongan una mejora en el aprovechamiento y utilización de las materias primas o en la eficiencia energética de las empresas.

C) Inversiones dirigidas a la reducción del impacto medioambiental de la actividad industrial.

3. Proyectos que supongan acciones de cooperación interempresarial que aborden la racionalización de los aspectos técnico-económicos de las empresas cooperantes.

4. Proyectos que supongan un incremento significativo con respecto al nivel de empleo preexistente. Se valorará de forma especial la incorporación de empleo ligado a las nuevas tecnologías.

CAPITULO II

AYUDAS

SECCION I

AYUDAS DESTINADAS A LA REDUCCION DEL COSTE FINANCIERO DE LAS OPERACIONES DE PRESTAMO DE PROYECTOS DE INVERSION EN ACTIVOS FIJOS EN LOS SECTORES INDUSTRIAL Y DE SERVICIOS PRESTADOS A LAS EMPRESAS.

*Artículo 9.–* Operaciones de préstamo

Las ayudas contempladas en la presente Sección, se refieren a las operaciones de préstamo a formalizar con las Entidades Financieras al amparo del presente Decreto y Convenio de Colaboración que se suscriba entre las mismas y los Departamentos de Hacienda y Finanzas e Industria y Energía del Gobierno Vasco, así como aquellas operaciones de préstamo a formalizar al amparo de posibles Convenios que pudieran concertarse entre los Departamentos antes citados y las Entidades Financieras, en base a las Líneas de Financiación Comunitarias.

*Artículo 10.–* Préstamos a subvencionar

Los préstamos podrán ser formalizados en pesetas o en cualquier divisa, siempre que éstos se ajusten a las condiciones que se fijan en el punto 1 del presente Artículo.

1. Características de los préstamos:

A) La cuantía máxima del préstamo a subvencionar será el 60% de la inversión subvencionable.

B) Plazo: entre 5 y 7 años incluyendo el período de carencia inicial el cual será, como máximo:

– Préstamos a 7 años: 24 meses.
– Préstamos a 6 años: 18 meses.
– Préstamos a 5 años: 12 meses.

Gabealdia ez da izango 12 hilabetetik beherakoa oro har.

C) Epemuga: Tronkoa eta interesak amortizatzeko, hiru hilabete gutxienera, epealdiak bete ondoren.

D) Dekretu honetako 9. atalean ezartzen diren Hitzarmenetan ezarriko da aplikagarria izan daitekeen goreneko interesa. Elkarteak finantzatzen dituen arloez baliatzen diren eragiketen kasuetan, punto batekoa izango da gehienera Finantza Erakundeak ezarriko duen diferentziala.

Dadina dadila, eragiketarako abala Elkarrenganako Bermedun Sozietate batek ematea gerta dadinean, 0,50 puntutan beheratuko da interesa.

2. Dirulaguntza moetak.

A) Oro har, hobariak Interes Moetetan:

– 3 puntura arte, maileguen izendun interes moetari dagozkionetan.

– 5 puntura arte, maileguen izendun interes moetari dagozkionetan, Dekretu honetako 8. atalean ezartzen denaren arabera lehentasundun proiektuak izan daitezenean.

Aurreko bi apartaduetan esaten denaz aparte, Elkarrenganako Bermedun Sozietate batek abalatutako eragiketek, puntu bateko gehigarrizko dirulaguntzaren hobaria jasoko dute.

B) Dibisetan edo ECUSetan formaldutako eragiketei dagozkienetan, atal honetako A) apartaduko 2. puntuan esaten denaren arabera hobarituko ditu eragiketak Sailak, gehigarrizko puntu 1 emanez gehienera eragiketak izan ditzakeen aldaketak babestu ahal izateko.

II. SEKZIOA

ENPRESEI ESKAINTZEN ZAIZKIEN INDUSTRI ETA ZERBITZU-SEKTOREETAKO AKTIBO FINKOETAN EGINGO DIREN INBERTSIO-PROIEKTUEI DAGOZKIENETAN, FINANTZA-ERRETAMENDUEN ERAGIKETETAN EGONGO DIREN FINANTZA-KOSTEAK GUTXIAGOTZEKO DIREN DIRULAGUNTZAK

*11. atala.*– Finantza-Errentamendu Eragiketak

Dekretu honetan eta Erakunde horiekin izenpetuko diren Lankidetza Hitzarmenetan oinarri hartuz, Finantza Erakundeen eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren eta Industria eta Energia Sailaren artean formalduko diren finantza errentamendu mailako eragiketak hartzen dituzte Sekzio honetan aipatzen diren dirulaguntzek.

*12. atala.*– Dirulaguntzaren gai izan daitekeen finantza errentamendua.

1.– Kredituetarako Erakundeen Disziplina eta Interbentzioari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Legeko Gehigarrizko Xedapenetatik Zazpigarrenean ezartzen denaren arabera, finantza errentamendu bidez finantzatutako aktibo finkoak, Dekretu honetan jasotzen diren dirulaguntzez baliatu ahal izango dira, 7. atalean ezartzen diren baldintza orokorrak betetzeaz aparte, honako baldintza hauek bete daitezenaren baldintzapean:

Con carácter general el período de carencia no será inferior a 12 meses.

C) Vencimientos: como mínimo de carácter trimestral para amortización de principal e intereses, por períodos vencidos.

D) El tipo de interés máximo aplicable se establecerá en los Convenios previstos en el Artículo 9 del presente Decreto. Para aquellas operaciones acogidas a las líneas de financiación comunitarias el diferencial a cargar por la Entidad Financiera será de un máximo de 1 punto.

En cualquier caso, si la operación es avalada por una Sociedad de Garantía Recíproca firmante del Convenio, dicho tipo de interés se verá reducido en 0,50 puntos.

2. Modalidades de Ayuda.

A) Con carácter general, bonificación en Tipos de Interés:

– Hasta 3 puntos del tipo de interés nominal de los préstamos.

– Hasta 5 puntos del tipo de interés nominal de los préstamos cuando se trate de proyectos de carácter prioritario en los términos previstos en el Artículo 8 del presente Decreto.

Además de lo dispuesto en los dos apartados anteriores, todas aquellas operaciones avaladas por una Sociedad de Garantía Recíproca incluída en el Convenio a firmar con las Entidades Financieras, serán bonificadas con 1 punto de subvención adicional.

B) Para aquellas operaciones formalizadas en divisas, el Departamento bonificará dichas operaciones en los términos expuestos en el apartado A) del punto 2 del presente Artículo, concediendo hasta un máximo de 1 punto adicional a fin de cubrir el riesgo de cambio de la operación.

SECCION II

AYUDAS DESTINADAS A LA REDUCCION DEL COSTE FINANCIERO DE LAS OPERACIONES DE ARRENDAMIENTO FINANCIERO DE PROYECTOS DE INVERSION EN ACTIVOS FIJOS EN LOS SECTORES INDUSTRIAL Y DE SERVICIOS PRESTADOS A LAS EMPRESAS.

*Artículo 11.*– Operaciones de Arrendamiento Financiero

Las ayudas contempladas en la presente Sección se refieren a las operaciones de arrendamiento financiero a formalizar con las Entidades Financieras al amparo del presente Decreto y Convenio de Colaboración que se suscriba entre las mismas y los Departamentos de Hacienda y Finanzas e Industria y Energía del Gobierno Vasco.

*Artículo 12.*– Arrendamiento financiero subvencionable

1. Los Activos Fijos financiados mediante arrendamiento financiero, tal y como se define en la Disposición Adicional Séptima de la Ley 26/1988, de 29 de julio, sobre Disciplina e Intervención de las Entidades de Crédito, podrán acogerse a las ayudas contempladas en el presente Decreto siempre que, además de cumplir las condiciones generales señaladas en el Artículo 7, cumplan los siguientes requisitos:

– Hobaridun enpresak, bere garaian erosketa egingo duenaren konpromezua har dezala eta bete dezala.

– Finantzaketa Errentamendu bidez, Eragiketen Finantzaketarako Hitzarmena izenpetu dezan Erakundeak gauzatu dezala finantza errentamendua.

2. Finantza errentamenduaren eragiketen zernolakoak:

A) Dirulaguntzaren gai izan daitekeen inbertsioaren %100ekoa izango da gehienezko zenbatekoa.

B) Epea: gutxienera bi urte eta, gehienera, bost urte, Kontabilitate Plan Orokorreko «Eraikuntzak» izeneko 221 epigrafearen kasuan izan ezik. Kasu honetan, finantza-errentamenduaren iraupena, hamar urtetakoa izan daiteke gehienera.

C) Dekretu honetako 11. atalean aipatzen den Hitzarmenean ezartzen da aplikarri izango den terifa moeta. EBS batek abalatutako eragiketa izan dadinean, 1/2 puntutan gutxiagotuko da tarifa hori.

3. Hobari moetak:

A) Eragiketen tarifa moetaren 2 puntura arte oro har.

B) Eragiketen tarifa moetaren 3,6 puntura arte oro har, Dekretu honetako 8. atalean ezartzen denaren araberako lehentasundun proiektuak izan daitezenean.

Aurreko bi apartaduetan ezartzen denaz aparte, Finantza Erakundeekin izenpetutako Hitzarmenean sartzen den Elkarrenganako Bermedun Sozietate batek emandako abalpeko eragiketa guztiek, 0,6 puntuko bonifikazioa izango dute gehigarrizko dirulaguntza modura.

III. SEKZIOA

DIRULAGUNTZAK METATZEA

*13. atala.*– Dirulaguntzen mugak

Inbertsio proiektu berarentzako eman daitezen dirulaguntzek, ezin gainditu ahal izango dituzte EEEk emandako arauetan eta horretarako sortutako Batzordeak finkatutako mugak, laguntzak metatzea gerta dadin kasuan. Ildo honi dagozkionetan, enpresa txikiei emango zaizkien laguntzek, ez dute gaindituko inbertsioaren %15a. Enpresa ertainei emandakoek berriz, ez dute gaindituko %7,5a. Dekretu honetako 4. ataleko 1. puntuan jasotzen diren baldintzak hartuko dira kontutan, enpresa bat txiki eta ertaintzat jotzeko.

*14. atala.*– Eragiketen gehienezko zenbatekoa

Maileguen eta/edo laguntzaren gai izan daitekeen finantza errentamendurako eragiketen balioa ez da izango 250 milioi PTAtik gorakoa. Biren balioak betara hartuta, hobaridun bera baliatu ahal izango da bi balioez.

III. ATALBURUA

PROZEDURA

*15. atala.*– Prozedura

Eskabideak aurkeztea, horretarako epeak, aurkeztu

– Que la empresa beneficiaria se comprometa a ejercitar y ejercite en su momento la opción de compra.

– Que el arrendamiento financiero sea realizado por Entidad firmante del Convenio para la Financiación de Operaciones mediante Arrendamiento Financiero.

2. Características de las operaciones de arrendamiento financiero:

A) La cuantía máxima será el 100% de la inversión subvencionable.

B) Plazo: como mínimo dos años y como máximo cinco años, excepto que se trate del epígrafe 221 «Construcciones» del Plan General de Contabilidad, en cuyo caso la duración del arrendamiento financiero podrá ser de hasta diez años como máximo.

C) El tipo de tarifa aplicable se establecerá en el Convenio previsto en el Artículo 11 del presente Decreto. En el caso de que la operación sea avalada por una S.G.R., firmante del Convenio, dicha tarifa se verá reducida en 1/2 de punto.

3. Tipos de bonificacion:

A) Hasta 2 puntos del tipo de tarifa de las operaciones, con carácter general.

B) Hasta 3,6 puntos del tipo de tarifa de las operaciones, cuando se trate de proyectos de carácter prioritario en los términos previstos en el Artículo 8 del presente Decreto.

Además de lo dispuesto en los dos apartados anteriores, todas aquellas operaciones avaladas por una Sociedad de Garantía Recíproca incluída en el Convenio suscrito con las Entidades Financieras, serán bonificadas con 0,6 puntos de subvención adicional.

SECCION III

ACUMULACION DE AYUDAS

*Artículo 13.*– Límites de las Ayudas

Las ayudas otorgadas al mismo Proyecto de Inversión, no podrán superar los límites señalados por la normativa comunitaria o las Decisiones que, al efecto, dicte la Comisión de la C.E.E., para el caso de acumulación de ayudas. A este respecto, las ayudas concedidas a las Pequeñas empresas, siendo éstas aquéllas que cumplan los requisitos fijados en el apartado A) del punto 1 del Artículo 4 del presente Decreto, no serán superiores al 15% de la inversión, mientras que las otorgadas a las Medianas empresas, es decir, aquéllas que cumplan los requisitos contenidos en el apartado B) del punto 1 del Artículo 4 de dicho Decreto, no superarán el 7,5% de la misma.

*Artículo 14.*– Importe máximo de las operaciones

El importe máximo anual del valor de los préstamos y/o de las operaciones de arrendamiento financiero a subvencionar, al que un mismo beneficiario podrá tener acceso, considerados conjuntamente, no podrá superar el límite de 250 millones de PTA.

CAPITULO III

PROCEDIMIENTO

*Artículo 15.*– Procedimiento

La presentación de solicitudes, los plazos para las

beharreko agiriak, laguntza eman zeneko zertarakoa beta dela eta eskuratutako fondoak aplikatu direla justifikatzeko epea eta modua, ebazpena emateko agintedun organua, ordainketa egiteko epeak eta modua, Dekretu honen garapen-xedapenetan finkatuko dira. Eta xedapen horietan espreski ezarri gabe daudenetan, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezartzen denaz arautuko da.

*16. atala.–* Osagarrizko agiriak

Industria eta Energia Sailak, aurkeztu diren eskabideak behar bezala ebaluatzeko eta horiei ebazpena emateko egokitzat jo ditzan agiriak eta/edo osagarrizko zehaztasunak eskatu ahal izango dizkie eskegileei.

*17. atala.–* Industria eta Energia Sailaren ahalmenak

Industria eta Energia Sailak, dirulaguntzaren gai izan diren proiektuen garapen eta burutzeari buruzko eta egokitzat jotako ziurtapenak gauzatu ahal izango ditu.

Aurreko parrafoan ezarri denaren ondorioetarako beharrezkotzat jotako agiriak aurkeztu beharko dituzte hobaridunek beti.

*18. atala.–* Lege-hausteak

Dekretu honetan eta aplikagarri diren gainontzeko arauetan ezarritako baldintzetakoren bat edo Erabakian ezarritako baldintzak hobaridunak ez betetzea gertatuz gero, horretan agintea duen Organuak honako hau deklaratu ahal izango du, Erabaki bidez, interesdunari entzutealdia ematea jasoko duen ezbetetze-espedientea sartu ondoren, hau da, dirulaguntzarekiko eskubidea galtzea eta, hala behar izanez gero, eskuratu diren dirulaguntzak Euskal Autonomi Elkarteko Diruzaintza Nagusira itzuli beharra, Abenduak 17ko 698/1.991 Dekretuan Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruz ezartzen denaren arabera, bidezkoak izan daitezkeen gainontzeko legebideen kaltetan gabe. Zenbateko horiek diru publikotzat joko dira ondorio guztietarako.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Dekretu honetako II. Atalburuko I. eta II. Sekzioetan aipatzen diren dirulaguntzak, ez dira indarrean jarriko, dekretu honetako 9. eta 11. ataletan aipatzen diren hitzarmenak izenpetu daitezen arte.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Indargabetzen diren arauetan ezartzen direnen arabera izapidetu diren espedienteei dagozkienetan, arau horietan ezarri dadinaren arabera jokatuko da behin-betirako artxibatu daitezen arte.

INDARGABETZE XEDAPENA

Dekretu honetan ezartzen denaren aurkako eta maila berdineko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetuta gelditzen dira eta, bereziki, honako hauek: industria arloan inbertsioak egiteko Finantza-Laguntzetarako Programa arautzen duen uztailaren 9ko 417/1991 Dekretua eta industria arloan inbertsioak egiteko Finantza-Laguntzetarako Programa arautzen

mismas, la documentación a aportar, el plazo y forma de justificación por parte del beneficiario del cumplimiento de la finalidad para la que se concede la ayuda y la aplicación de los fondos percibidos, el órgano competente para su resolución, asi como el plazo y modo de pago, se establecerán en las disposiciones de desarrollo del presente Decreto,y en lo no expresamente previsto en las mismas se regularán por lo dispuesto en la Ley 30/l992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 16.–* Documentación complementaria

El Departamento de Industria y Energía podrá requerir a los solicitantes cuanta documentación y/o aclaraciones complementarias estime conveniente para la adecuada evaluación y resolución de las solicitudes presentadas.

*Artículo 17.–* Facultades del Departamento de Industria y Energía

El Departamento de Industria y Energía podrá realizar cuantas comprobaciones estime oportunas relativas al desarrollo y ejecución de los proyectos subvencionados.

En todo caso, los beneficiarios deberán aportar cuanta información se considere necesaria a los efectos del párrafo anterior.

*Artículo 18.–* Incumplimientos

En los supuestos en que el beneficiario incumpliera cualesquiera de los requisitos establecidos en el presente Decreto y demás normas aplicables, así como las condiciones que, en su caso, se establezcan en la Resolución, el Organo competente, previo expediente de incumplimiento en el que se dará audiencia al interesado, podrá declarar, mediante Resolución, la pérdida del derecho a la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las ayudas percibidas, conforme a lo dispuesto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre sobre garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las citadas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos legales.

DISPOSICION ADICIONAL

Las ayudas previstas en las Secciones I y II del Capítulo II del presente Decreto no entrarán en vigor hasta tanto se suscriban los Convenios previstos en los Artículos 9 y 11 del presente Decreto.

DIPOSICION TRANSITORIA

Los expedientes tramitados conforme a lo dispuesto en la normativa que se deroga, se seguirán rigiendo por lo dispuesto en la misma hasta su archivo definitivo.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en el presente Decreto, y en especial el Decreto 417/1991, de 9 de julio, por el que se regula el Programa de Ayudas Financieras a la Inversión en el sector industrial, y el Decreto 39/1992, de 3 de marzo, por el que se modifica el Artículo 13 del Decreto 417/1991, de 9 de julio, por

duen uztailaren 9ko 417/1991 Dekretuko 13. atala aldatzen duen martxoaren 3ko 39/1992 Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko esku ematen zaio Industria eta Energia Sailburuari.

*Bigarrena.*– Dekretu honetan eta hau garatzeko arauetan ezarri dadina betetzerakoan sor daitezkeen arazo guztiei ebazpena emateko esku ematen zaio Industria eta Energia Sailburuari.

*Hirugarrena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko otsailak 2.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industria eta Energia Sailburua,
JON IMANOL AZUA MENDIA.

el que se regula el Programa de Ayudas Financieras a la Inversión en el sector industrial.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Industria y Energía para dictar las Disposiciones de desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.*– Se autoriza al Consejero de Industria y Energía para resolver cuantas cuestiones pudieran plantearse en la ejecución del presente Decreto y sus normas de desarrollo.

*Tercera.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de febrero de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria y Energía,
JON IMANOL AZUA MENDIA.

**1036**

56/1993 DEKRETUA, martxoaren 23koa, Industri eta Energi Sailaren antolaketa eta egitekoen egitura ezartzen duena.

Eusko Legebiltzarrak «Industri Politika - Ihardute Esparru Orokorra 1991/1995» agiria onartu zuen 1992ko urtarrilaren 9an. Agiri horretan oinarritzen da ondo taiututako Industri Politikaren garapenaz Eusko Jaurlaritzak egindako hitzarmena. Ihardute Plana da hain zuzen ere Politika horren funtsezko baliabidea. Plan hori ihardunean jartzeaz arduratuko den oinarizko antolakundea ere egokituko zaiola.

Horiek horrela, Industri eta Energi Sailburuaren proposamenez, Lehendakaritzak onartu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko martxoaren 23an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA: ANTOLAKETA OROKORRA

*1. atala.*– Industri eta Energi Sailak, horien eskuduntza urriaren 2ko 525/1991 Dekretuaren 6. atalak egozten dizkioneko egitekoak Dekretu honetan ohartemandakoaren arabera beteko ditu.

*2. atala.*– Aurreko atalean aipatutako gaiei dagozkien egitekoak burutu ahal izateko, honako ihardutesailez osatutako egitura izango du Industri eta Energi Sailak:

A) Ihardute-Sail Nagusiak:

1) Industri eta Energi Sailburua.

2) Industri eta Energi Sailordetza.

3) Industri Politikarako Sailordetza:
3.1. Giza Baliabideen Zuzendaritza.
3.2. Lehiakortasun Zuzendaritza.
3.3. Industri Egituren Zuzendaritza.

**1036**

DECRETO 56/1993, de 23 de marzo, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria y Energía.

La aprobación por el Parlamento Vasco con fecha 9 de enero de 1992 del documento «Política Industrial - Marco General de Actuación 1991-1995» constituye el compromiso del Gobierno Vasco en el desarrollo de una bien definida Política Industrial, configurándose el Plan de Actuación en instrumento básico de la gestión de aquélla, a la que es necesario adaptar la organización básica responsable de su puesta en marcha.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria y Energía, previa aprobación de la Presidencia, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión del día 23 de marzo de 1993,

DISPONGO:

CAPITULO I: ORGANIZACION GENERAL

*Artículo 1.*– El Departamento de Industria y Energía ejercerá las funciones en las materias cuya competencia le atribuye el art. 6.º del Decreto 525/1991, de 2 de octubre, de conformidad a lo previsto en el presente Decreto.

*Artículo 2.*– Para el ejercicio de las funciones relativas a las materias señaladas en el artículo anterior, el Departamento de Industria y Energía se estructura en los siguientes Organos:

A) Organos centrales

1) El Consejero de Industria y Energía.

2) Viceconsejería de Industria y Energía.

3) Viceconsejería de Política Industrial:
3.1. Dirección de Recursos Humanos.
3.2. Dirección de Competitividad.
3.3. Dirección de Estructuras Industriales.